

Hitzaurre gisa

Iñaki Martinez de Luna

Soziolinguistika

i.martinezdeluna@outlook.com

Zenbaki honen ekarpenak bi multzo ezberdinetan sailka daitezke. Lehenbiziko bost artikuluek Euskal Herriko Unibertsitateko Udako Ikastaroetako bat izan dute iturri. Zehatzago, 2016ko uztailaren 5 eta 6an Bilbon burutu zen *Euskararekiko gizarte erantzukizuna akademiaren eta gizar-tearen kultura-aldaketan* izeneko ikastaroaren parte dira artikuluko horiek. Euskara funtsezko osagai bezala ikusita, unibertsitatearen gizarte erantzukizunak dituen askotariko aurpegia islatua da artikuluko horietan. Zenbaki honen bigarren multzoko edukia bestelako bi artikuluko eta erreseina batek osatzen dute, denek jomuga bera partekatzen dutelarik: Euskal Herriz kanpoko hizkuntza gutxituen gaineko ezagutza zein jakituria gure esku jartzea.

Iñaki Markoren *Aktibo!eus* proiektua: euskara hiztun aktiboak unibertsitatearen erronka gisa artikulukoak irekitzen du artikuluen sorta. Izenburuan aipatzen den proiektu hori UPV/EHUn 2014an abiatutako diziplinarteko lan-lerroa da, «*Pertsona eleanitzak eta euskara hiztun aktiboak sortzea*» lelo edo erronkaren inguruan sortua. Helburu hori aurrera eramateko asmoz abiatu zen dinamika, horretan eman diren urratsak eta baliatu diren metodologiak azaltzen ditu artikulukoak.


Bigarren artikulukoaren oinarria Pierre Bourdieu-ren *habitus* kontzeptua da, zeina Eduardo Apodakak unibertsitatearen errealitatera ekarri duen, idazlan horren izenburuak islatzen duen bezala:



Habitus-a edo hizkuntzaren ezkutuko curriculuma unibertsitatean. Egileak azaltzen digu *curriculum ez-formala* unibertsitate-bizitzan gertatzen diren dinamika orok osatzen dutela, eta horiek aztertuz unibertsitatearen ekinbide linguistikoetako helburuak zein bitartekoak zehazten laguntzea bila daitekeela. Ahalegin horretan bi eragile multzo bereizten ditu egileak: batetik, dispositibo gisa jokatzan duten unibertsitate-joera eta ohiturak, eta bestetik, ikasleek unibertsitaera eramaten duten *habitus* linguistikoaren egokitzapena.

Hurrengo artikulua *Akademia eta Hizkuntza-Politika* du izena. Horretan, Iñaki Martínez de Lunak ezagutza soziolinguistikoaren inguruan nazioarteko eta Euskal Herriko giro akademiakoetan dauden zenbait kezka eta ikuspegi azaltzen ditu. Hartara, Hizkuntza-Politika eta -Plangintzaren (HPPren) nazioarteko giro akademiakoetan landu diren zenbait hurbilpen teoriko eta aplikaturen berri laburra jasotzen da, batetik, eta euskal unibertsitate-sistemak bertako soziolinguistikari eta, zehatzago, HPPri egiten dion ekarpena aztertzen da.

Ondoren, Gwerfyl Roberts irakasle eta ikertzaile galestarrak izenburu luzeko eta eduki mamitsuko artikulua dakarkigu: *Hizkuntzaren inguruko jardunbide egokiak osasungintzan eta gizarte-zerbitzuetan: "eskaintza aktiboaren" printzipioa txertatzea Galeseko testuinguru elebidunean.* Idazki horretan, osasungintzan eta gizarte-zerbitzuetan dauden hizkuntza-beharrizanei erantzuteko premia azaltzen du, eta horretarako dagoen arrazoi bikoitza ere bai: pazienteen segurtasuna eta duintasuna bermatzea, batetik, eta paziente horien zaintzaren kalitatea, bestetik. Helburu horiekin, hiru gai ditu hizpide: lehendabizi, galesaren "eskaintza aktiboaren" printzipioa; jarraian, goi-mailako hezkuntzak duen rola, galesezko bitartekoen eskaintza sendotzeko eta programa profesionale-



tan hizkuntzarekiko kontzientzia indartzeko; azkenik, bide horretan jarraibiderik egokienak zein diren erabakitzeko frogak sortu eta ezartzea.

Zenbaki honetako itur nagusizat hartu dugun udako ikastaroan jorratutako gai ei amaiera emateko Aitor Montes Lasarteren art ikulu dugu, non Galeseko irakaspenak gurera ekartzen diren: *Hizkuntza kontzientzia osasungintzan. Unibertsitatearen eta Osakidetzaren ekarpena zein elkarlana kultura-aldaketa prozesuan*. Artikuluak azpimarratzen du osasun arloa gakoa izan daitekeela euskararen normalizazioan, osasungintzarako proposamen berriak zerbitzua pazientearen hizkuntzan ematera behartzen du eta. Pazientean zentratu riko arretak eta eskura daukagun ebidentziak berresten dute kalitatea eta hizkuntza banaezinak direla. Horretara iristeko kultura aldaketa beharrezkoa izanik, hizkuntzaren gaia prestakuntzan txertatu behar dela gogorarazten digu artikuluak, horretarako unibertsitatearen eta Osakidetzaren arteko elkarlana bultzatuz.

Kanpoko haizeak dakarzkigun idazlan-sortara igaroz, bretoieraren egungo egoerara hurbiltzen gaitu Jon Artza Bikandik seigarren artikuluan: *Bretoiera: hizkuntza gutxitua kinka larrian*. Hizkuntza horrek azken mendean izandako galerari buelta eman nahian ibili den arren, oso zaila gertatzen ari da berrindartu eta normalizazio prozesuan aurrera egitea. Horren gaineko datuak eta zergatiak azaltzen ditu egileak; baita etorkizunerako gako batzuk eman ere.

Zenbaki honen azken artikulua -baina ez interes txikienekoa- Xulio Viejo Fernándezek idatzitakoa da: *Bazterreko gogoetak Asturiaseko soziolinguistikaren inguruan*. Erkidego autonomiko horretan, hizkuntza-aldarrikapenaren mugimenduarekin batera berariazko ezagutza soziolinguistikoa ere garatu dela azaltzen digu egileak. Era berean, kontatzen digu jakintza horren lanketa, neurri handi batean, hizkuntzaren inguruko debate publikoko terminoen bitartez adierazi dela eta, horrela, eragina izan duela asturieraren barne-barneko pertzepzioan, belau-naldien arteko transmisioan eta beste zenbait arlotan.

Kanpoko ikuspegiei amaiera emateko -eta, aldi berean, zenbaki honen edukiei ere bai-, *Liburu-Erreseina* atala osatu du Beñat Garaioak. Horretan, P. Austin eta Julia Sallabank-en gidaritzapean osatu eta argitaratu den *The Cambridge Handbook of Endangered Languages* lanaren non-dik-norakoak azaltzen dira. •